



Tokiko nekazaritzako elikagaien sektorearen sustapena



Garapen

GARAPEN AGENTZIEN
EUSKAL ELKARTEA
ASOCIACIÓN VASCA
DE AGENCIAS DE DESARROLLO

etorkizuna lantzen
por y para el desarrollo

Tel.: 94 424 32 23 · Fax: 94 424 80 02 · email: garapen@garapen.net
Boroa Enpresa Parkea, Boroa Elkartegia 19, 2. solairua, 16 Bulegoa
48340 Amorebieta-Etxano, BIZKAIA

Aurkibidea

Sarrera _____ 3


Arlo estrategikoa 1: Tokiko
produktu eta merkatuen garapena
eta promozioa _____ 6

Arlo estrategikoa 2: nekazaritzako
elikagaien industriako ETEn
lehiakortasuna hobetzea
eraginkortasuna, berrikuntza eta
teknologia sustatuz _____ 13

Sarrera

Euskal Herriko tokiko garapen agentziak urteak daramatzate euren lurraldeko garapen jasagarri inklusibo eta adimendunaren alde lanean betiere ikuspegi integratzaile baten bidez hiria eta baserriaren arteko dikotomiaz haratago. Horretarako, nekazaritza arloko eta itsasbazterreko eragile garrantzitsuekin elkarlanean dihardute modu naturalean dinamikak sustatu eta lurralde kohesionatua, lehiakorra eta ingurumenarekiko jasagarria sortu nahian, ekonomia ekimenak sustatuz oraindik gutxi aztertuta dauden arloetan, eta horrela, kalitatezko Enplegua sortu nahian.

GARAPENen (Garapen Agentzien Euskal Elkarte) parte diren agentzia askok euren garapen estrategietan nekazaritzako elikagaien arloa kontuan hartu dute. Hori bai, jarraian azalduko ditugun oso bestelako ikuspegiak kontuan hartuz. Edonola ere, guztiek partekatzen duten hausnarketa da eskualdeek balioztatu beharreko tokiko baliabide garrantzitsuak dituztela ekonomia ikuspuntutik (nekazaritza arloarekin uztartuta).



Elikadurak balio-katea integrala osatzen du: lehen sektoretik hirugarren sektorera, eta horretaz gain bestelako ekonomia sektorekiko transbertsala da. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailaren datuen arabera: elikadura, lehen sektoreko ekoizpena, elikadura-industria, elikadura-merkataritza, berriztapena eta kolektibitateak, turismo gastronomikoa eta elikagai-garraioak kontuan hartuz BPG-aren (Barne-Produktu Gordin) % 10,56-a adierazten dute, eta Euskal Herrian 100.000 lagunei lan zuzena eskaintzen die.

2015-2020rako diseinatutako Euskal Herriko Landa Garapenerako Programa (LGP) Euskal Herrian landa garapenerako oinarritzako tresna da, eta bertan parte hartzen dute Eusko Jaurlaritza nahiz Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Aldundiek. Lau erakunde hauek elkarlanean ari dira Euskal Herriko lehen sektoreko eta nekazaritza arloko erronka nagusei aurre egiteko.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak 2014-2016 epealdian egindako Nekazaritzako Elikagaien Industria Lehiakortasun Planak helburu nagusi gisa ezartzen du tokiko kalitatezko produktura lotutako nekazaritza industria indartsua, jasangarria, lehiakorra eta jasangarriaren garapena.

Azkenik, Euskal Herriko espezializazio adimendun RIS3 Estrategiak elikadura aukera gune gisa identifikatzen du. Nekazaritzako elikagaien arloa zalantzarik gabe nazioartean etorkizuna duen jarduera da.

Eusko Jaurlaritzak ezarritako erronka eta lehentasunekin bat lan egin nahian Tokiko Garapen Agentziek arlo honetan interes handiko ekimenak lantzen ari dira. Azken urteotan hainbat eskualdetan suertatu diren beharrei erantzuna ematen ahalegintzen diren ekimenak, hain zuzen ere, eta horietan guztietan hausnarketa lan estrategikoa egin da.

Goraipatu beharra dago nekazaritzako elikagaien arloan interesa duten garapen agentziek GARAPENetik lan-talde zehatza martxan jarri zutela 2014an arlo honetan. Arlo honi zuzendutako lan-taldea hain zuzen ere. Arlo honetan lanean dabiltzan agentzien artean elkarlanean proiektuak definitu, diseinatu eta aurkeztu ahal izateko. Lan hau errazteko asmoz, nekazaritzako elikagaien arloari zuzendutako zaintza sistema estrategikoa batekin lanean hasi da lan-taldea. Horrela tokiko garapen agentziek informazio garrantzitsu eta gaurkotua izan ahal dute azken joeren, izaera berritzailea duten proiektu interesgarrien, nazioarte mailako **praktika onen, europa mailan sektoreari buruzko eztabaiden... inguruan.**

2016an lan-talde hau Eusko Jaurlaritzaren deialdi irekira aurkeztu da Landa-Garapen Programa markoaren barruan. Helburu nagusia da aukera berriak identifikatzea lehen mailako ekoizpenaren ondorioz suertatutako hondar eta azpiproduktuetan (balorizazio eta birziklapen arloetan) baita agroindustria eta katearen gainerako arloetan ere. Betiere nekazaritza elikagaien sektoreari lotutako informazio estrategikoaren kudeaketa oinarri hartuta, eta kateko eragileen artean ezaguera konpartituz kooperazio guneetan. Xedea: **"nekazaritzako elikagaien hondarreko balorizazioa"** ardatz duen proiektu pilotoa.

Aipatu den bezala, dossier honetan bilduta dauden esperientzia, edo ekimenak bi taldetan bana daitezke. Alde batetik, tokiko elikadura sistema indartzearen aldeko apostua egiten duten agentziak: Elikadura-subiranotasuna, agroekologia, tokiko merkatuen sustapena, merkaturatze ibilbide laburrak, **biodibertsitateari errespetua... Bestetik, nekazaritzako elikagaien sektorearen dinamizazioarekin lotutako ekimen eta proiektuak (ETE-en balio-katean lanean dabiltzan lehiakortasun eta berrikuntzaren sustapenarekin lotuta).**



Banaketa honek analisi marko bat ezarri nahi du azken urteetan gure inguruan garatu diren proiektu guztiak biltzeko asmoz koherentziaz, eta guztiak ulertzeko asmoz. Baliteke gainera, agentzia edota eskualderen batek bi arloetan lanean aritzea, edota azalpenek bi arloetako edukiak konpartitzea. Dena dela ez da agentziek landutako proiektuak antolatzeko modu bakarra.

Arlo estrategikoa 1: Tokiko produktu eta merkatuen garapena eta promozioa

Tokiko elikadura sistema indartzeko prozesuak sustatzeko estrategian oinarrituta Tokiko Garapen Agentziek euren lurraldeko elikadura sistemaren diagnostikoa egin dute fase ezberdinak kontuan hartuz. Helburua ekintza plan zehatzak identifikatzea da izaera agroekologikoa duen tokiko elikadura sistemaren promoziorako, eta balio-kate osoan zehar eragingo duten kalitatezko proiektuak sustatzeko asmoz (hiritarren prozesu parte-hartzeileetan oinarrituta).

Gaur egungo elikadura kontsumo eredia ekoizpena ez lokalizatzean eta baita kontsumo ohituren aldaketetan oinarritzen da. Ondorioa kasu askotan lur-emankorra, lehen sektoreko enpleguak, edota tokiko merkatuak bertan behera uztea da. Ereduek honen inguruan eztabaidatzen eta hausnarketa egiten ari dira zenbait eskualdetan. Aukera gisa nekazaritzako elikagaien sistema jasangarriagoa eskatzen dute herritarrek gertuko merkatuak sustatuz, eta tokiko eta kalitatezko produktuen bidez. Ingurunekeo baliabideen erabilera arrazional eta jasangarriari lotutako ekonomia jarduera mantendu eta sustatzeko.

Arlo honetan lanean dabilzan eskualde eta agentziak bat datoz: lurraldearen diagnostiko bat egitea garrantzitsua da (tokiko elikadura sistema osatzen duten arloei bideratuta): ekoizpena, eraldaketa, merkaturatzea eta kontsumoa, eta sektorea dinamizatzea. Eskualde batzuek modu integralean ekin diote lan honi arlo guztietan lan eginez. Beste batzuek aldiz, arlo batean edo bestean aritu dira.

Bigarren fase batean, agentziek euren ekintza planak diseinatu dituzte (tokiko elikadura sistema indartzera bideratuta).

Ekoizpenaren ikuspegitik tokiko elikagaiak ekoizteko hainbat eskualdetan baliabideen inbentarioa egin da (nekazaritza-ustiatzearen inbentarioa; lurren ustiatzea; etab.). Landu beharreko ildoei dagokienez, eskualdean erabiltzen ez diren lurrak mobilizatzeko interesa goraiatzen da; prestakuntza ekoizpen ekologikoa bezalako arloetan, salmenta zuzena, eraldaketa, merkaturatzea, etab. eta aholkularitza ustiatzearen eraldaketarako laborantza ekologikoetan.

Eraldakuntza arloan egindako diagnostikoen helburua ekoizleen indarguneak aztertzea izan da: elikagaien eraldakuntzarako egokiak diren lokal publikoen inbentarioa egin, kontsumitzaileen beharrak ezagutu, etab.

Kontsumo eta merkaturatze arloetan eskaintza eta eskariaren analisia egin da, eta baita merkaturatze baliabideen analisia ere (asteroko merkatuak, etab.). Tokiko produktuari irteera emateko merkaturatze mekanismoak beharrezkotzat jotzen dira. Beraz, akzio planak kontsumitzaileen sentsibilizazio ekimenetara, berezko marka edota asteroko merkatuetara bideratuta egon dira.

Sektorearen dinamizazioari dagokionez, akzio planek kateko eragile eta kontsumitzaileen artean sareak sustatzen ahalegindu dira, herritarrak sentsibilizatu dituzte, lehen sektorea ikusarazi, nekazaritza ekologikora zuzendutako aholkularitza eta laguntza zerbitzua sortu, foroak antolatu ekoizle eta kontsumitzaileen artean, asteroko merkatuak dinamizatu, elikagaien erosketei buruzko Udal arautegia

aztertu, elikagaien subiranotasunari buruzko manifestua idatzi, udal sukalde bat martxan jarri tokiko produktuez hornituta, eskola zentro bateko menuan tokiko produktuak erabilia sukaldatzea.



Esperientzia interesgarriak

[Basaldea Proiektua. Nekazaritza ekologikoaren sustapena Vitoria-Gasteizen](#)



Proiektuaren helburu da epe ertainean enplegua eta negozioak sortzea nekazaritza produktu ekologikoak ekoitzi eta banatzearen alorrean. Iraunkortasuna kontuan hartuz kalitateko elikagaiak bertan ekoiztea hirian horiek kontsumitzearekin lotu nahi da.

Horretarako, ekintzaile berriak nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza jasotzen ari dira, bai eta nekazaritza ustiapen tradizionaletako arduradunak ere. Nekazaritza-haztegia ere abian jartzen ari da –urte honen bukaeran edo 2017aren hasieran inauguratzea aurreikusi da–, nekazaritza ekologikoko ustiapen berriak sor daitezen; Gasteizko udalerrian ezaugarri horiek dituen proiektu bat garatu nahi duten ekintzaile berriei lurra, ekipamendu eta azpiegitura komunak eskaintzea da horren helburua, eta dagoeneko 4 ha-ko lursaila utzi da gizarteratze enpresa baten bidez enplegu eta gizarteratze plan bat garatzeko.

Orobat, banaketa eta merkaturatze kanal bat diseinatzen ari da Gasteizko ekoizle ekologiko guztientzat, eta komunikazio kanpainak iradokitzaileei (ostalariak eta abar), produkzio tradizionalan diharduten nekazariari eta herritarrei oro har zuzenduta.

"Basaldea proiektuak hiri inguruko 21 ha lur nekazaritza ekologikorako irabaztea ahalbidetu du, eta hori hasiera besterik ez da, proiektua hiriko beste alderdi batzuetan errepikatu ahal izatea espero baitugu.

Uste dugu Basaldea proiektuak epe ertainean enplegua eta negozioak sortuko dituela Arabako nekazaritza produktu ekologikoak ekoitzi eta banatzearen alorrean; Arabako produktu ekologikoekin erantzungo dio orain elikagai mota horrek duen eskaerari, eta gainera, bertako paisaia —Gasteizko nekazaritza paisaia eta dibertsitate biologikoa— mantentzen lagunduko du".

Juncal Ibeas, Vitoria-Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zuzendaria.



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen



Argiitalpenak:

- http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=es&aplicacion=wb021&uid=u1549ba7_137a153d318_7fd8&tabla=contenido
- <https://www.youtube.com/watch?v=CV9IbbGzT08>
- http://www.eneek.org/descargas/digital/ekolurra/Ekolurra_54_2014.pdf
- http://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2014-09-13-07-00/hemeroteca_articles/12-lursail-ekologiko-berri-gasteizen-basaldea-proiektuaren-baitan
- <http://www.eitb.eus/es/radio/radio-vitoria/programas/lur-bizia/audios/detalle/3954624/radio-vitoria-arranca-basaldea-proyecto-integral-agrario-gasteiz/>
- <http://www.socinfo.es/contenido/seminarios/0508smarcities7/VitoriaBasaldea.pdf>

Bertatik Bertara

Baserriko produktuen ekoizpena eta tokiko kontsumoa sustatzeko lehen sektorearen estrategia propioa da. Baserritarren beharretatik abiatu dena eta hauek lurraldearen bizi ekonomiko eta sozialaren parte izatea indartuko duena.

Oinarri nagusia herritarrei landa kultura eta honen garrantzia helaraztea da. Bertako produktuen bitartez, herria eta mendia elkarrengana hurbilduaz, modu baten, nekazariak erantzutea gizarteak duen beharrari eta alderantziz.

Beraz, baserritarrak, dendariak, kontsumitzaileak (herritarrak oro har, jangelak, **ostatuak, jatetxeak, industriak, museoak...**) eta administrazioa batuko dituen sare indartsua osatzea du helburu. Eskualdean salmenta eta produkzioarako egitura antolatua eta iraunkorra eraiki behar da, gero lurraldera zabaldu daitekeena.

Modu bateratuan: Inguruko baserriak bizirauteko gakoak identifikatu dira, nekazaritza arloko proiektuetako tokiko produktuen ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko modua adostu da, elkarrekin eskualde estrategia propioa sortu da (martxan jarriko diren ekimenak kontuan hartuko dituen) eta ekimen berritzaileei laguntza eskaintzen zaie sektorean ilusioa sustatzeko.



"Bertatik Bertara egitasmoak kontsumo arduratsua sustatzeko bideak egiten ditu, bertan ekoiztutakoa bertan erostea lehen pausua izanik. Kontsumo mota honek, bidezko prezioak, tokiko ekonomia indartzea, baserritarren lan baldintza duinak bermatzea, garraio kostua eta kutsadura murriztea, kalitatezko produktuak lortzea, ingurumenarekiko eta paisaiarekiko errespetua, kulturaren zaindari lanak... bezalako onurak ekarriko dizkio gizarteari eta eskualdeari".

Josune Makaia, Uggasako Ingurumen Teknikaria.



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen



ArgiItalpenak:

- <http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/ekosfera/3445534/4084776/mungia-azoka-herri-eta-uro-la-garai-an-bertatik-bertara/>
- <http://bertatikbertara.eus/es/>
- <https://www.youtube.com/watch?v=SfhPos4oeW4&feature=youtu.be>


Hamar urte trantsizio agroekologikoa landuz Orduñan

Tokiko nekazaritza ekologikoaren dinamizazioa sustatzeko proiektua da. Lehen sektoreari zuzenduta dago, turismoa, industria, merkataritza, hezkuntza, eta kulturarekin lankidetzan. Proiektuak tokiko ekonomia garapenaren aldeko apustua egiten du nekazaritza ekologikoan, eta elikaduraren subiranotasunean oinarrituz.

Tokiko krisiak Udalerriaren etorkizuna birplanteatzea eragin zuen. Hainbat egoerek aldaketaren hasiera ekarri zuten: Udalerriaren nekazaritza ekologikoaren garapenaren aldeko apustua egiteko plan estrategiko bat landu zen (lehen sektorea ekonomia-jarduera gisa aintzakotzat hartuz).

Helburua da ekonomia sustapenaren aldeko irizpideak integratzen jarraitzea, baita nekazaritza ekologikoaren aldeko irizpideak ere, eta elikadura subiranotasunaren aldekoak kudeaketa eta garapen planetan.

Merkaturatze zirkuito laburren aldeko apustua egin da. Horretarako, hainbat arlotan laguntza eskaini beharra dago: ekoizpenaren arloa, arlo eraldatzailea... eta honek lehen sektorea, artisautza industria eraldatzailea... **barneratzen ditu**. **Orain arte** egindako lanak bestelako proiektuak garatzeko oinarria finkatu du.





"Gracias al proyecto Ekoizpen mejorará la calidad de vida del municipio y de la comarca. La idea es seguir integrando criterios de promoción económica, de agroecología y soberanía alimentaria en los planes de gestión y planes de desarrollo. La apuesta es por el desarrollo de los circuitos cortos de comercialización, para lo que hay que apoyar diferentes ámbitos: el productivo, el transformador...y esto incluye sector primario, industria artesanal de transformación etc... El trabajo realizado hasta el momento ha creado la base para poder desarrollar otros proyectos".

María José Imaz. Urduñederrako ekoizpen zerbitzuko teknikaria



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen



Argitalpenak:

- <http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/ekosfera/4343352/4386168/agroekologia-urduñederrako-eta-zaborren-kudeaketa-ikt-bidez/>
- <http://regresandoalfuturo.org/>

Lur Bizi

Busturialdeko 20 Udalek sustatutako proiektua da. Helburua, elikadura-zikloaren inguruan enplegua sortzea da (eskualdean elikadura sistema lokala garatuz epe luzera begira). Hau guztia martxan jarri ahal izateko, aurretiaz diagnostiko bat egin da 5 lan-esparrutan banatuta (elikadura-zikloa barneratuta).

Proiektuak berak enplegua sustatzea du helburu. Bai lehen sektorean, bai eraldakuntzaren sektorean, banaketan, elikagaien kontsumoan eta salmentan.

Horretarako, eskualdeko elikadura sistemaren diagnostikoa egin da. Egindako diagnostikoari esker lehen eskutik ezagutu ahal izan da eskualdeko gaur egungo egoera zein den.

Elikagaien ekoizpen eta kontsumoa kuantifikatu da eskualdean bai bakarka bai modu kolektiboan arlo pribatu eta publikoan. Eskualdeak dituen baliabideekin inbentario bat egin da, eta eskualdean beharrezkoak diren elikagaien eraldakuntza eta lanketa instalazioak.



"Tokiko Elikadura Sistema Iraunkorra eta arduratsua garatzeko enplegua sustatzeko, osasuna hobetzeko, ingurugiroa babesteko, tokiko ekonomia garatzeko eta giza babesa indartzeko proiektua da LurBizi".

Bego Landa, Bermeo, Mundaka eta Sukarrietako Behargintzako zuzendaria eta Amagoia Beika, Gernikako Lanbide Ekimeneko zuzendaria



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen



Argitalpenak:

- <https://www.youtube.com/watch?v=TOq3zSmLGcQ>

[Mungia azoka herria. Azoken tokiko kontsumoaren eta nekazaritza industriaren sustapenerako ekimenak](#)

Tradiziozko azoka eta merkatuen eskaintza Mungian betidanik existitu da. Batez ere, eskualdeko baserri produktuak saltzeko egon den beharrianagatik eskualdea osatzen duten bederatzi udalerrietan.

Horregatik Mungiak azoka eskaintza zabala eta era askotarikoa du (gaur egun udalerrian urtean zehar 79 jarduera egiten dira). Kalitatezko produktu hauek gabe horrelako eskaintza izatea ez litzateke posible izango. Hori dela eta, ekimen honen helburua nekazaritza industriaren sustapenerako eta azoketan tokiko produktuen kontsumoa indartzeko ekintzak antolatzea da.



"Euskal nekazaritzako elikagaien sektorearentzako ziurgabetasun askoko egoeran gaude. Herritarren kontsumo ohituretan emandako aldaketak kontutan hartuz, gure herrietako jarduera ekonomikoa biziberritzeko beharrianean aurkitzen gara, eta horretarako gure azoken aberastasuna indarrean jartzen dugu. Honenbestez "Mungia Azoka Herria" programaren bidez, kalitatezko tokiko nekazaritzako elikagaien ekoizpena sustatzen dugu kontsumitzaileen beharrianetara egokitzen diren azokak bultzatuz".

Garazi Monasterio, Mungialdeko Behargintzako ostalaritza eta turismo sektoreak dinamizatzeko teknikaria



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen



Argitalpenak:

- <http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/ekosfera/3445534/4084776/mungia-azoka-herri-eta-urola-garaian-bertatik-bertara/>

Arlo estrategikoa 2: nekazaritzako elikagaien industriako ETEn lehiakortasuna hobetzea eraginkortasuna, berrikuntza eta teknologia sustatuz

Nekazaritzako elikagaien sektorearen aldeko apustua egin duten garapen agentziek berrikuntzaren alde eta ete-en lehiakortasuna sustatuz lurraldeari buruzko diagnostikoak egin dituzte, eta horiei esker nekazaritza elikagaien baliko kateak eskualdean duen garrantzia hobeto ezagutu ahal izan dute, kateko enpresa traktoreak identifikatu ahal izan dituzte eta hauek lurraldeko gainerako enpresekin duten harremana, eta sektorean parte hartzen duten aditu eta eragileekin ideiak egiaztatu ahal izan dituzte.

Elikaduraren balio katea hobetu ezagutzeari esker (eskualde bakoitzak dituen gaitasun eta baliabideak hobeto aprobetxatzeko asmoz) ekimenak martxan jarri ahal izan dira. Eusko Jaurlaritzako estrategiak (elikadura industria arloan) helburuen artean identifikatu ditu industria honi garrantzi gehiago ematea enpresa lankidetzaren bidez, eta sektoreko ete-en lehiakortasuna eta kultura berritzailea sustatzea.

Aipatutako estrategiarekin bat eginez garapen agentzien ekintza planak nekazaritzako elikagaien sektoreko ete-en lehiakortasuna hobetzera bideratuta egon dira: eraginkortasuna, berrikuntza eta ezaguera sustatuz. Ildo honetan kultura berritzailea sustatzeko ekimenak martxan jarri dira produktu berriak garatzeko, merkatu berrietan sarbidea errazteko, etab.

Agentzia bakoitzak bere lurraldean sustatzen dituen ekimenez gain, lankidetzan diseinatzen diren proiektuak ere lantzen dituzte. Esaterako, Gipuzkoako 5 garapen agentziek landu duten Polo de la Industria Alimentaria. Konfiantza sarea sortzeko asmoz sektoreko enpresa eta eragileen artean.



Esperientzia interesgarriak

GuztiONA nekazaritzako elikagaien klusterra

Donostiako Sustapenak Nekazaritzako Elikagaien Sektorea bultzatzeko sustatutako tokiko Klusterra da. 2013ko azaroan aurkeztu zen, eta 2014an lehen jarduera-plana burutu zen. Gaur egun, 58 agente ditu, eta balio-kate osoa ordezkatzeko dute.



Helburu nagusia da sektorearen erronka nagusiak bultzatzea:

- Balio-kate osoaren gainean, enpresa-ehun irmoa sustatzea, sektorea kultura gastronomiko handiko nazioarteko inpaktuarekin lotuta.
- Eskaria gehitzea tokiko produktuei balioa emanaz eta hirugarren sektorean sustatuaz.
- Tokiko produktuen eskaintza gehitzea nekazaritzako ekintzaitza babesteko programen bitartez.
- Enpresen lehiakortasuna hobetzea: prestakuntza sektoriala, nazioartekotzea sustatzeko laguntza-**neurriak, berrikuntza,...**

"Fomento de San Sebastián, en el marco de su estrategia sectorial y de clusterización, trabaja con el sector Agroalimentario desde la creación de su Clúster Guztiona en el año 2013. La gastronomía es uno de los atractivos más valorados de Donostia, y es sinónimo de cultura, tradición y cuidado del medio ambiente. La industria agroalimentaria constituye además un beneficio económico para la comunidad. Por todo ello, Fomento de San Sebastián, a través de su Clúster Guztiona, promueve el sector agroalimentario local, mejorando su capacidad productiva y de transformación, activando la demanda y poniendo en marcha proyectos que aumenten la oferta. Todo ello generando sinergias con otros sectores como el comercio, la restauración, etc."

Ana Aizpuru, Estrategia Adimentsu eta Sektorialeko Arduraduna.



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen

HEFOLA: Healthy Food Lea-Artibai.

Elikadura sektoreko eskualdeko eta nazioarteko enpresen arteko proiektua merkataritza lankidetzara, lankidetzara tekniko, eta ekonomiko sustatzeko.

Helburu nagusia Europa mailan elikagai osasungarrietan erreferente diren erakundeekin lankidetzara proiektuak eta hitzarmenak adostea da.



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen

Jantur proiektua

Egitasmo honen helburu nagusia, tokiko ekoizle eta turismo-zerbitzu hornitzaileak zuzenean harremanetan jartzea da, tokiko produktu nahiz tokiko turismo-zerbitzu hornitzaileen eskaintza balioan jarriz.



Jantur proiektuak lehen sektoreko ekoizleek euren produktuak merkaturatzeko dituzten zailtasunetan eragin nahi du plataforma teknologiko baten bitartez. Plataformak, ekoizleak, turismo-zerbitzuen hornitzaileak nahiz azken kontsumitzailea zuzenean (bitartekaririk gabe) harremanetan jarri nahi ditu.

"Jantur proiektuaren balio erantsia sustatu nahi dituen harremanetan dago. Plataforma teknologikoak, ekoizlea, turismo-zerbitzuetako hornitzaileak eta azken kontsumitzaileak jartzen ditu harremanetan. Eragile hauen artean sustatu nahi diren harreman zuzenek, tokiko ekoizleen produktuei balio erantsi bat eskaini eta hauen diferentziak erraztu nahi du. Ondorioz, proiektuak, tokiko ekoizleen produktuak eta hauek oinarri hartuta sor daitezkeen turismo zerbitzuak balioan jartzea da bere helburua".

Losu Sorazu, Iraurgi Berritzeneko berrikuntza proiektuen kudeatzailea



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen

Gipuzkoako elikadura Industria Poloa

Gipuzkoako 5 agentzien arteko (Oarsoaldea, Tolosaldea Garatzen, Donostia-Beterri, Urola Kosta eta Debegesa) lankidetzak proiektu bat da elikadura industria sektoreko enpresen artean lankidetzak sustatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko baita eragileen artean ere.

Proiektua bi fasetan banatuta dago:

- Lehen fasea. - Nekazaritza elikadura balio katearen diagnostikoa dagokion lurralde eremuetan zonaldeko balio katearen argazki bat lortzeko.
- Bigarren fasea. - Elikadura Industria Poloaren diseinua.

Proiektuan parte hartzen duten eragileen arteko lankidetzak ondorengo ekimenak martxan jarri nahi ditu:

- Agentzia parte hartzaileek ordezkatzeko duten 5 lurraldeetan elikadura industriaren balio katearen diagnostikoa betetzea.
- Elikadura Industria Poloaren oinarriko elementuak eta lan-arloak definitzea, zerbitzu eskaintza eta/edo proiektu zehatzak, eragileen arteko harremana, kudeaketa eta finantza eredia eta laguntzak bilatzea prozesua errazteko asmoz.
- Elikadura industria arloko enpresen arteko lankidetzak sustatzea proiektuan parte hartzen duten bost lurraldeetan (Oarsoaldea, Donostia-Beterri, Tolosaldea Garatzen, Urola Kosta eta Debegesa), eta baita euren lehiakortasuna sustatzeko eragileen artean ere.
- Nekazaritza elikadura arloko ekimenetan parte hartzen duten eragileen artean era koordinatu batean ekimen eta estrategiak modu bateratuan jarri, eta enpresen proiektuak garatzeko gune bihurtzea.
- Nekazaritza elikadura sektorera zuzendutako lehiakortasunerako tresna adimentsua eta teknologikoa martxan jarriko da joeren berri izateko modu orokorrean, eta horrela balio estrategikoa duen informazioa lortuz eta aztertuz enpresek erabaki hobek lor ditzaten eta gaur egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko.

Poloari esker lortutako adibide bat: SMART PACK esperientzia.

Proiektuari esker lortutako emaitzetako bat ondorengo esperientzia dugu: SMART PACK: nekazaritzako elikagaien sektorerako **ontzi eta/ edo enbalaje intelijentea**". Gaur egun enpresek dituzten ontzi eta bilgarriekin alderatuta, balio erantsia izango duen produktu berria lortzea, eta gaur egungo produktuen bidez eskuragaitzak diren merkatuetan sartzeko aukera izatea da xede nagusia.



Nekazaritza elikagaien industriaren aldetik eskaria erregularragoa izango duen produktua lortu nahi da. Esportazioetan (garraio ibilbideetan) produktua egoera perfektuan mantenduko duen ontzia, eta Produktua ekoizten den garaiak eraginik ez izatea eta urte osoan zehar kontsumitu ahal izatea, hain zuzen ere.



*"El Polo Industria Alimentaria de Gipuzkoa será positivo para mejorar la competitividad de las empresas, dado que las fortalezas existentes actualmente son grandes, tales como: gastronomía de alta calidad-notoriedad, proximidad a Donostia, influencia de la gastronomía francesa, productos de mar y de montaña, saber hacer de las empresas, puerto importante, condiciones excepcionales para Turismo de **Naturaleza**,... Esto nos lleva a resaltar el efecto económico multiplicador del trabajo, la categorización e implicación de los agentes actuales, así como las posibilidades reales de captación de inversiones empresariales y generación de puestos de trabajo en las zonas de las Comarcas participantes en el proyecto.*

El envase inteligente (Smart Pack) dirigido al sector agroalimentario responde a nuevos retos que nos demanda la sociedad: nuevas formas de consumo, nuevos hábitos alimentarios, envejecimiento, el tiempo dedicado al ocio, etc. Desde una perspectiva interna, señalar que la comercialización de un nuevo producto/servicio (más aún en empresas que actualmente no cuentan con producto propio) impacta en una cantidad importante de empleos, tanto directos como indirectos.

En lo que a sostenibilidad económica se refiere, señalar que uno de los apartados clave del proyecto (el del análisis de la viabilidad económica del producto) se ciñe precisamente a analizar en detalle el mercado objetivo y a buscar la sostenibilidad económica de la idea. Asimismo, el hecho de desarrollar una propuesta basada en tecnología, garantiza la sostenibilidad de la idea en lo que a la vertiente económica se refiere".

Rosa Macías, Oarsoaldeako Industria Sustapenerako Teknikaria.



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen (Gipuzkoako elikadura Industria Poloa)



Esperientzia interesgarria osorik irakurtzeko klik egin hemen (SMART PACK: nekazaritzako elikagaien sektorerako ontzi eta/ edo enbalaje inteligentea)